

SUBJUNKTIBOAZ ETA AGINTERAZ ZENBAIT OHAR: *-EN* ETA *-ELA* ATZIZKIEN ERABILERA

Patxi GOENAGA

Euskaltzaindiak aspalditik esku artean duen gramatika proiektua dela eta, landu beharreko puntu zehatz baten azterketa bideratzen hasi nahi nuke lan honetan: subjunktibo delakoak perpaus osagarrietan eta lokabeetan duen jokabidea zein den arakatu nahi da. Bereziki, zein baldintzatan gertatzen den adizkia *-EN* atzizkiaz hornitua eta noiz, *-ELA* atzizkia lagun duela. Euskal gramatikara hurbiltzen diren askok egiten duten galdera da hau.

Lehenbizi, euskaraz *subjunktibo* delako moduaz hitzegitea bidezko den ala ez eztabaidatuko da. Ondoren, *-EN* eta *-ELA* atzizkien banaketa zein den ikertzen saiatuko naiz bai perpaus osagarrietan, bai agintera tankerako perpaus lokabeetan. Erabateko proposamenik egitea ezinezko bada ere, euskal testuetan denetik aurki baitaiteke, joera batzuk behintzat ikus daitezke.

1. SUBJUNKTIBOA EUSKARAZ.

Subjunktibo deituraz bada euskal gramatiketan zenbait nahaste eta iluntasun (ik. A. King 1987). *EGLU*-n bertan ere arazoari iskin egin geniola esango nuke. Lan horretan adizkien sailkapen formala egiten da, formen arteko oposizioan oinarritua, eta, gero, badaezpada ere, bi zutabetan ezartzen da alde batetik gure sailkapena eta bestetik Euskaltzaindiaren *Euskal Aditz Batua*-n eskaintzen dena. Esan dezagun, bide batez, bigarren zutabe honetan behin baino gehiagotan ageri dela "*subjuntibo*" deitura. Ezkerreko zutabearen berriz, behin ere ez. Hala ere, honela idatzi genuen orduan: "Ez ditugu gustoz aldatu izenak. *Euskal Aditz Batua* delakoa baino lehenago proposatuak zituzten izen

diferenteak Intxauspek (1858), Ithurry-k (1895), Lafon-ek (1943) eta Lafitte-k berak ere, elkarren artean bat ez zetozela. Orain arte adizkien forma bakarririk izan dugu kontuan eta forma horretan oinarriturik, (...) ez dugu beharrezkotzat jo “*subjuntibo*” eta horrelako izenak erabiltzea. Hala ere, gure bideari jarraituz gero, zenbait adizkiren deitzeko -zenbait forma deitzeko, alegia- nahikoa buruhauste izango ditugu. Adibidez, *etor dadin* bezalako adizki bat honelatsu deitu beharko genuke: “etorri aditzaren aspektu gabeko **edin* oraina ez-ahalezkoa”. Hau, agian, nahaste iturri izan liteke. Horregatik, zenbaitetan, eroso gerta daitekeelakoan *subjuntibo* hitza ere erabiliko dugu. Deitura hori -*dadi*- edo -*deza*- laguntzaileen sailekoentzat gordeko dugu, bereziki -*n* edo -*la* atzizkiak hornitua doanean”. (EGLU II, 138).

Modu eta *modalitate* kontzeptuak bereizten saiatu dira hizkuntzalariak. Hemen ere adostasun handirik ez da izaten, maiz, hizkuntzalarien artean. *Modua modalitatearen* gramatikalizazioa izango litzateke, Morenoren arabera (1991: 314-315): “La modalidad es una relación entre la actitud de los hablantes y lo que éstos dicen. Esta actitud puede ser, por ejemplo, una creencia, una suposición, un deseo, una orden. (...) Igual que los tiempos verbales son formas gramaticales cuyo principal uso es el de hacer referencias temporales, los modos verbales son formas del verbo uno de cuyos principales usos es el de establecer una modalidad determinada. Si el tiempo verbal es una *gramaticalización* de la referencia temporal, el modo es una gramaticalización de la modalidad.

Las modalidades son muchas, pero los modos gramaticales son pocos y forzosamente ha de haber un uso múltiple de estos modos para expresar las distintas modalidades.

Además del imperativo, los modos más usuales son el indicativo y el subjuntivo” (314-315).

Garbi dago *modalitate* jakin bat adierazteko bide bat baino gehiago izan dezakegula. Adizki jakin batez, *modu* jakineko adizki batez, balia gaitzke halako modalitatea adierazteko. Beste zenbaitetan, berriz, moduaz baliatu beharrean beste tresna gramatikal batzuk erabil ditzakegu. Aginteraren kasuan hori argi dago. Aginduak emateko balio digu *aginterak*. Agintezko modalitatea agintera gisa ezagutzen dugun aditz moduaz emango dugu aditzera: *Eman iezadazu ogia*. Baina gauza bera adieraz daiteke aginteraz baliatu gabe ere: *Emango zenidake ogia?*

Kontua da ea zenbat modu desberdin berezi behar ditugun euskaraz. Perpaus jakinetan ageri zaizkigun adizkiak aurrizkiz edo atzizkiz horniturik aurki ditzakegu maiz. *Zaude lasai* diogunean *zaude* adizkiak ez du bestelako morfemarik. Horrenbestez, *zaude* adizki hutsa da, adizki garbia, eta aginteratzat har liteke arazo handiegirik gabe. Baina *goazen* diogunean edo *eman*

diezagutela diogunean, badirudi adizki horietan adizki soila baino zerbait gehiago dugula. Mendeko perpausetan bestelako adizkiek ere hartu ohi dituzten -EN edo -ELA atzizkiak ikusten ditugu hor: *goazen* = *goaz* + *en*; *eman diezagutela* = *eman diezagute* + *ela*. Horrenbestez, adizjokoaz ari garenean ongi bereizi beharko genuke zer den egiatan adizkia eta zer den atzizkiz edo aurrizkiz hornitutako adizkia.¹ Eta bigarren kasu honetan, erabaki beharko genuke atzizkidun edo aurrizkidun adizki horiekin aditz modurik osa daitekeen ala ez. Dena den, euskal gramatiketan bi joera ikus ditzakegu. Inchauspek (1858), adibidez, indikatiboaz, subjunktiboaz eta inperatiboaz gainera “votif”, “suppositif” eta “conditionnel” direlako moduak bereizten ditu. Allières-ek, (1979), ostera, bi modu bereizten ditu, funtsean: *erreal*a eta *ahal*era. Bi modu hauei, bestalde, *agintera* gehitu beharko litzaieke. EGLU-n ere honen antzeko bidea hartu zuen Gramatika Batzordeak.

Argi dago euskal aditz paradigmak azaltzean ez dela nahitaezko, behar bada, koadroko “gelatxo” bakoitzari deitura bat ezartzea, baina sarritan “gelatxo” horietako bati edo batzuei erreferentzia egin nahi diegunean deitura egoki eta eroso baten faltan aurki gaitezke. Horixe da, hain zuzen, *subjunktibo* delakoarekin gertatzen zaiguna. Hala ere, kontuan izan bedi *etor dadin* bezalako forma bat *subjunktibotzat* hartzen badugu, forma horretan adizkia bera baino zerbait gehiago dugula: adizkia eta atzizkia, hain zuzen. Horrenbestez, *etor dadin* bezain “subjunktibo” izango litzateke *etor dadila* edo *etor badadi*. Kasu hauetan gramatikalariari interesatzen zaiona da badela adizki bat, *etor dadi*, beti ere menpeko perpausetan, -edo agintera tankerako adizkietan- agertuko dena. Behar bada, adizki hauek gramatika ‘modu’ bat osatzen dutela esan liteke, subjunktiboa hain zuzen. Delako subjunktibo honen ezaugarriak izango lirateke aspektu markarik ez izatea (*etor*) eta laguntzaile gisa *EDIN, *EZAN, EGIN eramatea. Hauek aditz forma bereziak osatzen dituzte. Berezitasun hori batez ere perpaus menderakuntzan nabari da, zeren aditz batzuek (NAHI IZAN, AGINDU, ESKATU, ERREGUTU, ...) horrelako adizkiak dituzten perpausak gobernatzen dituzten bitartean, besteek ez dituzte horrelako osagarriak ametitzen (USTE IZAN, AHANTZI, IKUSI, ...):

- (1) a. Ez zuen nahi lagun geniezaion. (*Ez zuen nahi lagunduko genion)
b. Isilik egon zitezela eskatu nien. (*Isilik egon zirela eskatu nien)
- (2) a. Uste dut lagunduko digutela (*Ez dut uste lagun diezaguten)
b. Ahantzi zaio autoa kalean utzi duela (*Ahantzi zaio autoa utz zezan).

¹ Euskaltzaindia bera ere, aditz batua aurkeztu zuenean ez zen oso koherente ibili. Batetik nadin, banadi, nendin, banendi jasotzen ditu, baina nadila-rik ez. Naizen eta banaiz ere ez ditu jasotzen, jakina. (ik. Euskera XVIII, 1973, 20-73 orr.). Baina aditz sintetikoan, nago-ren ondoan ikusten ditugu nagoen eta banago. (Euskera XXII.2. 1977, 789 orr.)

Honek esan nahi du adizki hauek badutela tasunen bat perpaus nagusiko aditzak 'ikusten' duena. Tasun hau, hain zuzen, SUBJUNKTIBOA izan liteke. Horrela, aditz batzuek beren osagarriari [+SUBJ] tasuna izatea eskatuko diote eta beste batzuek, berriz, ez. NAHI IZAN-ek edo ESKATU-k tasun hori izango dute. Subjunktiboaren agerpena zilegi zerk egiten duen eztabaidatzen hasi gabe ere (cf. Laka 1995), esan liteke euskal adizjokoan badela adizki multzo bat 'modu' berezi bat osatzen duena. Agian modu berezi honi subjunktibo deitzeko eskubidea badugu.

Nolanahi ere, *subjunktibo* deiturak subordinazio kontzeptuarekin du erlazioa. Omaechevarria ongi ohartu zen horretaz. Hark moduen artean "intencional" izeneko sartu zuen: "El intencional, llamado también subjuntivo por la principal de sus funciones, utiliza respectivamente los radicales "-edi-" y "-eza-" con la forma nominal del verbo aspectualmente neutra o indefinida, para significar intención, finalidad, deseo y otros matices semejantes, generalmente en oración subjuntiva o subordinada". (Omaechevarria 1959: 25).²

Dena dela, gure kasuan, *EDIN, *EZAN erroen gainean eraikitako adizkiez arituko gara, adizki hauek *-EN* eta *-ELA* dutelarik. Atzizki hauek menperakuntza markak dira eta horrenbestez, horrelako adizkiak menpeko perpausetan agertuko dira, berez.

Alde honetatik, bi multzo handitan bana ditzakegu adizkiak: a) inolako menderagailurik gabe ager daitezkeenak, beraz, perpaus lokabeak izango liratekeenak: *etorri da, joan zen, etor daiteke, etor zitekeen, etor liteke, zoaz*; eta b) menderagailua dutenak nahitaez: *-letor (baletor), etor -dadi- (etor dadin, etor dadila, etor badadi), etor zedin (etor zedin, etor zedila), etor -ledi- (etor ledin, etor baledi)*.

Jakina, lehen saileko adizkiek menderagailua har dezakete: *etorri bada, joan zela, etor daitekeen, etor zitekeela, etor baliteke, zoazela*, etab. Bigarren sailekoek nahi eta ez behar dute menderagailua. Bi multzo hauei, hirugarren bat gehitu beharko litzaieke, aginterarena, honek, egiazko agintera dugunean,

² Omaechevarriak moduz gainera modalitatea ere bereizten du. Azken hauetan bi bereizten ditu: "supositivo" delakoa eta "optativo" izeneko. Baina nahaste pitin bat sortzen da haren koadroetan. Adibidez, sar badadi bezalako adizkiei "supositivo del potencial" deitzen die (49 orr.), sar baledi bezalakoak, berriz, "presente eventual supositivo del intencional" (paradigma XI). Ez da oso ongi ikusten badadi sailekoak zergatik diren potencial eta baledi sailekoak, berriz, "intencional". Jakina, bai potentzial deitzen dugunak, bai subjunktibo deitzen dugunak, bai badadi/baledi saileko baldintzakoek, denek dute erro bera eta, agian, zilegi izan liteke denek amankomunean zerbait dutela pentsatzea, nahiz eta ez dagoen erabat argi zer izan litekeen. Kontua da, denetan, adizkiak berezko edukia izango duela -nahiz eta garbiegi ez jakin zein den. Horrezaz gainera, aurrizkiek eta atzizkiek beste zerbait erantsiko liokete adizki horri. Zerbait hori moduarekin zerikusia duena izan daiteke edo, agian, beste zerbaitekin izango du zerikusia.

ez baitu menperakuntza markarik gehitzerik onartzen. Edo bai. Alegia, *zaude lasai* diogunean *zaude* hori agintera da, baina, intonazioaz aparte, ez dugu biderik “erreala” eta “agintera” bereizteko. Edo *joan zaitez* adizkia bera da, itxuraz behintzat, “aginteran” (*joan zaitez*) eta “subjunktiboa” (*joan zaitez+en*). Horrenbestez, ez genuke esaterik izango *joan zaitezela agindu dizute* bezalako perpaus batean *joan zaitezela* hori ‘subjunktiboa + -ELA’ den ala ‘agintera + ela’. Hala ere, *EZA erroaren gainean eraikitako adizki subjunktiboa eta aginterazkoa ongi bereizten dira: *egin dezazu-* vs. *egin ezazu*. Garbi dago lehenbizikoak atzizkia edo aurrizkia eskatzen duela: *egin badezazu/egin dezazun/egin dezazula*. Baina egiazki agintera denak ez du atzizkirik onartzen: **egin ezazula*/**egin ezazun*. Horrek esan nahi du “agintera” modua ezin dela perpaus menperatu batean erabili. Aginduzko perpaus bat mendeko gisa doanean, agintera utzi eta EDIN/EZAN laguntzaileadun adizkiak erabiliko dira, behar den atzizkia baliatuz. Hauetako genieziaieke ‘subjunktibo’ euskaraz, beste deitura egokiago baten ezean.

Nahitaez menderagailua eskatzen dutenak dira, nolabait, subjunktibotzat har daitezkeenak. Hots, *subjunktibo* deitzen dena zenbait perpaus menderatutik eskatzen duen “modua” izango da.

2. NOIZ -ELA ETA NOIZ -EN?

Euskal gramatikan ‘subjunktibo’ zeri dei dakiokkeen argitu ondoren, askori burura datorkion galderari ere erantzuten saiatu beharko genuke. Alegia, subjunktibo delako horrek batzuetan -EN atzizkia darama eta beste batzuetan -ELA eraman dezakeela dirudi. Ba ote da inolako araurik?

Subjunktibo delako honek atzizkia behar duela esan dugu. Baldintzazkoak albora utzirik, kontua da, hala ere, ea baden gramatikan -ELA eta -EN-en arteko hautua egitera behartzen gaituen ezer.

Euskal gramatikak galdera honi erantzuna ematen saiatu dira baina badi-rudi gauzak ez daudela nahi bezain argi.

Omaechevarriak (1959) aski ongi azaltzen du kontua, nire ustez: “Se le agrega ya el sufijo conjuntivo “-n”, ya “-la”: con sentido de mandato, generalmente “-la”; con significado de voluntad, ya “-n”, ya “-la”; en los demás casos “-n” (46. orr)

Gauzak beste modu batera ikusten ditu Txillardegik (1978): “Noiz erabil *subjuntiboa*?

Ontzat eman daiteke Lafittek ematen duen arrazoin-hirukotea:

Nahi-izan aditzaren menpean datozen aditzak (*nahi dut, agintzen dut, desiratzen dut, otoizten dut, ...*), nahiz erdarazko lotura *que* izan (konpletiba hutsetan bezalaxe), euskaraz *subjunktiboan* jartzen dira, eta *-n-z* beraz:

- bihar etor zaitezten nahi dut
- etxea sal dezazun nahi dute
- tirorik bota ez zezaten agindu zuen
- joan gaitezen manatu du

Gauza bat da *-la* eta beste bat *-n*, (...) *-la* eta *-n* atzizkiek betekizun desberdinak dituzte. Baina, gero eta gehiago, erd. *que* = eusk. *la* onartuz (eta hau berriz ere, euskal jitearen aurkako kalko hutsa baizik ez da) esakera hauek entzun daitezke: *etor zaitezela, sal dezazula, bota ez zezatela, joan gaitezela*.

Molde jatorra, zalantzarik gabe, *-n* duena da; eta bizirik dago oraindik ere euskalki askotan.” (261-262 orr.)

Aurrerago ere gauza bera: “Arrisku handia dago *-la* = *que* idazteko; hein batean baizik ez baita egia hori.

Uste eta nahi aditzezko konpletibek, (...) *-n* behar dute; eta ez *-la*: *joan zaitezen nahi dugu* (=eta ez, *zaitezela*); *beldur nintzen ager zedin* (eta ez, *zedila*); *iritsi den uste dut* (*iritsi dela* baino jatorkiago; honetan Iparrarrei garraizkielarik)” (ib. 397).³

Lafitte-k, egia, *-n*-ri ematen dio nagusitasuna, baina zehar estiloan bidezkotzat ematen du *-ELA* forma: “Quand le discours indirect on fait intervenir des subjonctifs de volonté, on les met au complétif, c’est à dire que l’on se sert des formes en *-la* de *dadi* et *deza* accompagnant un infinitif radical. (...): *erran diot ez dezala holakorik egin, (...) errozu doala hemendik, (...) banoako doala (...)*” (Lafitte 1944, 401)

Ohart gaitezen bide batez, Lafittek ematen dituen adibide guztietan *erran* aditza dagoela edo honen kidekoren bat suposatu behar dela, azken perpausuan, adibidez.

Geroagoko beste gramatiketan, dena den, Lafitte-ren ikuspegi hau da batez ere erakutsi dena. Adibidez, Zubiri & Zubiri-ren (1995) gramatika, *-ELA*-dun subjunktiboa 3. pertsonako aginteraren (*etor dadila*) eta perpaus konpletibo deitzen dituenetara mugatzen dute: *esan* eta *gomendatu* aditzen osagarrietara, hain zuzen. Hots: Lafitte-ren zehar estilo kasua besterik ez litzateke izango.

³ Hemen ‘subjunktiboaz’ ari garenez, uste izan bezalako aditzen erregimenaz ez dugu esatekorik. Nolanahi ere, uste izan eta nahi izan ez dirudi parean jar daitezkeen aditzak direnik gobernatzen duten osagarriari dagokionez behintzat.

EITB-ko *Euskarazko albistegietarako esku liburua* hartzen badugu, berriz, gauzak ezbaian uzten dituela esango nuke: “Osagarriak aditz *subjuntibo*z sortzen direnean ere, “-(E)LA” atzizkia erabili beharrean “-(E)N” bukaera jar dakiok e aditzari zenbaitetan. “*Nahi, gura, gurago, nahiago, erre-gutu, eskatu, agindu, proposatu, gomendatu, beldur izan, beharrezko izan, zilegi izan...*” Horiexek ditugu erabilera hau onartzen duten aditzetako ba-zuk. Adibidez:

- “*Lehen bait lehen etor daitez EN eskatu die...*”
- “*Bilera Madrilen izan dadi N nahi du...*” (103. orr.)

Hots: estilo liburu honen arabera, arau orokorra -ELA erabiltzea izango litzateke. -EN bukaera, berriz, zenbaitetan zilegi den zerbait.

Baina gauzak horrela ote diren ikustea on litzateke. Horretarako, ezin-bestekoa dirudi testuetara jotzea eta testuen lekukotasunetik erabilera finkoa agertzen ez balitz ere, joera nagusiak zein diren ikusten saiatzea. Lan hau aski sistematikoki egin daitekeena da, are gehiago gaur egun ditugun tresnekin, baina tresna horiek eskura ez izanarren, joera nagusiak zein diren aski erraz ikusten ahal da. Gramatika lanetan *nahi izan, agindu* eta *esan* dira batez ere aipatzen diren aditz nagusiak. Hona hemen beste zenbait, adibide gisa eta zerrenda agortzeko asmorik batere gabe. Ez dago esan beharrik subjuntibo-aren orde, aditz izena dela gehien erabiltzen den egitura. Baina gu subjuntiboaz arduratuko gara hemen.

2.1. Badira zenbait aditz normalean ‘subjuntiboa + -EN’ eskatzen dutenak:

BELDUR IZAN

- (3) “*etzara beldur ... gertha zaitezin?*” (Ax. 93)
- (4) “*beldur zen enzun zezan*” (Ax. 34)
- (5) “*Bildur naz errebesau ezdaidan, edo aize dongaz bete ez nadin*” (Mogel, *Peru Abarka*, 30)

MEREZI

- (6) “*eztu ... balia dakion merezi* (Ax. 90)

NAHI IZAN

Aditz honen mende doan perpaus osagarria, *subjuntiboan*, ez da gehienetan -ELA atzizkiz horniturik agertzen. Beraz, aditz honen osagarria -EN formakoa izango da:

- (7) “*Nahi du probetxa gakitzan*” (Ax. 109)

- (8) “Nahi dezu *goacen* eta *bildu dezagun?*” (J.A. Uriarte, Mt 13, 28)
- (9) “Nahi diat bada gazteac *ezcon ditecten*, haour *daguiten*, etchea *goberna deçaten*, occasioneric batre etsayari *eztemoten* gaizqui erraiteco” (Lç, I Tim 15, 14)
- (10) “Non nai dezu, Pazkoa *jan dezagun?*” (Lardizabal, 106)

Hau da joera nagusia, nahiz eta testuetan, han-emenka *-ELA*-dun adibi-deak ere aurki daitezkeen.

Dena den, perpaus “pitzatu” edo direlakoetan (*nahi dudana da* tankera-koetan, alegia) badirudi *-ELA* erraz onartzen dela:

- (11) “Nai duana da *gorde dezagula* berac emandaco legue bigun ta amorioz betetacoa” (Otaegi, 282)

Honen antzekoak izan ohi dira “hau da nire nahia” tankerakoak, nola-baiteko aurkezpen baten ondoren datozenak, alegia:

- (12) Hau da nire nahia: denok bakean bizi gaitzela.

Horrelakoetan, badirudi zilegi dela *-ELA* atzizkiaz baliatzea, nahiz eta oso antzeko egitura duten perpausetan lekukotasun desberdinak aurki daitezkeen. Leizarragaren honako hau, adibidez:

- (13) “Haur da Iaincoaren obrá, *sinhets deçaçuen* harc igorri duena baithan” (Lç, Jo 6, 29).

Dena den, esan behar da, Leizarraga *-EN*-en zalegoa dela *-ELA*-ren baino mendeko perpausetan. (13)-ko pasarte hori berori Kerexetak beste modu honetara ematen du:

- (14) “Auxe da Jaungoikoaren egitekoa (...) Berak bialdu dauanari *sinistu dagiezuela*.”

Hona hemen adibide hau ere:

- (15) “Baña ote daquizu cer esan nai duan Tobias zarraren itzcuntza eder onec? Esan nai ditu iru gauza. Lembicicoa da: cerbait ematera zoacen aldian, *ezdezazula beguiratu* adisquidea dan edo *ez-adisquidea* (...) *beguira dezazula* (...) ta *eman dezazula* (...). Bigarrena da: ematen asi ezquero, *eman dezazula* cere escubiac ongui ongui zabalduric...” (Otaegi, 403)

Horrelakoetan, autorearen, euskalkiaren eta garaiaren arabera, atzizki bata edo bestea aurki dezakegu. Etxeparek, adibidez, (14-15)-eko esamoldearen oso parekoa *-EN* atzizkiarekin ematen du:

- (16) "Anhitz gauza behar dira iudizio handian: iujeak *duien* potestate parte ororen gainian, demandantak *erran dezan* bere kausa egiaz, ..." (Etxepare, I, 264)

PERMITITU

- (17) *Gogor ditezin* permititzen duela. (Ax. 70)

2.2. Baina badira beste predikatu batzuk 'subjunktiboa + -ELA' ere onar-tzen dutenak, autoreen, euskalkien eta garaien arabera:

ABISATU

- (18) "Abisatzen zituen ... *har zezatela*" (Ax. 188)

AGINDU

- (19) "Lehenengo mandamentuak agintzen digu Jaungoikoa *amatu eta hon-ratu daigula*" (OA 4, apud OEH)
(20) "Eta agindu cioten *etzezatela aguertu*" (J. A. Uriarte, Mt 12, 16)
(21) "Gure salvezalleac aguintzen digu, *maite izan ditzacula* gure etsayac" (J. B. Agirre, *Erakusaldiak* I, 228)

BEGIRA

- (22) "Begirautzu *eztadilla* zure ahoa iuramentura *usat...*" (Ax. 126, 175)
(23) "Eta iduri badagotzu zure gaitzak *eztirela* xipienak, *begirauzu* horrela *gerta ezta-kizun* zure pazienza gabez" (SP *Imit* III 19, 1, apud OEH)

EGIN

- (24) "Egizu beraz guziak *maita detzadan*" (Brtc 207, apud OEH)
(25) "Egizu, arren, (...) *pekatu guzien barkapena iritxi dezatela*" (Orixe, *Urte guziko meza bezperak*, 698)

Egin aditzak osagarri gisa perpausa onar dezake, adibide hauek erakusten duten bezala. Hala ere, *egizu* aginterazko forma ez baizik modu 'errealekoa', Allières-en (1979) terminologiaz baliatuz, erabili nahi bada, ez dakit zenbataraino den zilegi subjunktibozko perpaus osagarria erabiltzea. Nolanahi ere, kasu horretan -EN izango litzateke erabili beharreko atzizkia eta ez -ELA:

- (26) Denborak *egin* du euskara den bezalakoa *izan dadin* (*dadila)

Egizu-rekin aski normalak dira 'subjunktiboa + ELA' modukoak. Agian, aurreragoko Leizarragaren (44) adibidean ageri den -ELA-k eta honek justifi-kazio bera izango lukete: azken batean, azpian dagoena agintera dugu.

ERABAKI

- (27) "Erabaki du *biurtu daien* euskarara (...) kristau ikasbidea" (Legaz III, apud OEH)

Baina

- (28) "Erabakitzen da, [fiatzalleak] *ipini dezala* zaldi, beor, mando edo mando-emea" (Donostiako Fueroa). Etxeg. RIEV 1908, 118, apud OEH)
- (29) "Erabagi dot *joan zaitetzala* zeu gureen artera" (*Auñamendiko* 156)

ERAKUTSI

- (30) "Orregatic S. Francisco Javierrec, S. Carlos Borromeoc eta Ritualac berac eracusten digüe, *eztaquiela eman* onelacoai absolucioric" (J. B. Agirre, *Erakusaldiak* I, 226)

ERREGUTU

- (31) "Erregutu zayozute bada uztaren Jaunari, *bialdu ditzala* languilleac bere uztara" (J. A. Uriarte, Mt 9, 38)
- (32) "Jaincoaren aurrean jarriric, erregutzen dio arren *atera gaitzala* ambat lasterren lecu artatic..." (Otaegi, 218)

Hala ere, autore berak, -EN atzizkidun forma ematen digu:

- (33) "Erregutzen digu penitenciaco iturrian *garbitu gaitean* pecatuaren loietatic" (Otaegi, 217).

Pentsa liteke lehen pertsona izateak baduela -EN atzizkiaren agerpenean zerikusirik. Nolanahi ere, OEH-ko korpusean -ELA-dun adizkiak askoz ugariagoak dira -EN-dunak baino

ESKATU

OEH-k dio aditz honek konpletiboa eraman dezakeela baina honen xehetasunik ez zaigu ematen. Hala ere, -TZE aditz izenezko adibideez gainera, beste honako hauek ere ematen ditu hiztegi honek:

- (34) "Eskatzen diot guziek mundu guzian *ezagun dezaten*" (Ber Doc 129 v)
- (35) "Ikusleari eskatuko nax *emon dagiala* kontua" (Mic 15 r)
- (36) "Eskatan naz [...] *usur ditzan* orren gain bere bendizioniak" (Mdg 139)
- (37) "Itxasotar guztiak osasunez *etxeratu eizala* eskatuten" (Ag Kr 16)
- (38) "Cer eguingo guenduque bada Jaun onec escatuco baligu *eguin dezagula* beragatic berac gugatic eguin duan adimbat" (Otaegi, 282)

OEH-ko korpusean oraingoan ere-ELA-dun adibideak dira ugarienak.

ERRAN/ESAN

- (39) "partitzerakoan, erran zioten, arren *zegiola* Iainkoari hetzaz othoitz."
(Ax. 98)
- (40) "Esan zion *erreza zezala* argatik" (Goñi 78, apud OEH)

GAZTIGATU

- (41) "gaztigatzen diozu *eduki dezala*" (Ax. 54)

GOMENDATU

- (42) "Guztien gainetik gomendatzen deratzuet (...) *eztazizuen* batere iuramenturik" (Ax. 169)
- (43) "Gero, gomendaturik ongi, *etzezala* beraz *bilha* Jesus maiteaz kanpo bertzerik..." (Joannategi, *Sbi* 69)

Dena den, OEH-ko korpusean adibide gehiago dira -EN dutenak -ELA dutenak baino.

JAKINARAZI

- (44) "Orain bada çuec iaquin eraci ieçoçue Capitainari, conseilluaren vorondatetic bihar hura *erekar dieçaçuela*, ..." (Lç, Akt 23, 15)

Adibide hau da, nik dakidala, Leizarragak subjunktiboa -ELA-z hornitua ematen duen adibide bakanetakoa.⁴

KONSEILATU

- (45) "Hala *dagitela* konseillatzeintu Iondone Paulok presuna zaharrak"
(Ax. 127)

MANATU

- (46) "Manatu zuen ... *errezibi genezala*" (Ax. 343)

baina

- (47) "Ceren aditu baitugu ccen gutaric ilki diraden batzuk, cembeit propossez trublatu vkan çaituztela, çuen arimác erauciz eta *circonçidi çaitetzten* eta Leguea *beguira deçaçuen* manatuz, ..." (Lç, Akt 15, 24)

⁴ Perpau hau dela eta, interesgarria da Lafonek (1943) dioena: "Le présent périphrastique à suffixe -la, formé au moyen d'un auxiliaire à valeur déterminée, sert à exprimer un ordre ou un vœu; avec négation, une défense.

Dans Act 23, 15 *çuec iaquin eraci ieçoçue Capitainari ... hura eracar dieçaçuela* (...) exprime un ordre subordonné à un autre qui est exprimé à l'imparfait; il équivaut donc à notre subjonctif. Mais la plupart du temps, c'est à notre impératif positif ou négatif qu'il équivaut" (II, 51)

- (48) “Manatzen du ifernua andi eta bortizki
han direnak *igor'itzan* luzamendu gaberik” (Etxepare I, 244)

Hala ere, Etxeparek berak beste hau ere badakar:

- (49) “Erioa manatzen du, ezein falta gaberik
hilak oro *dakatzela* aitzinera bizirik” (Etxepare I, 239)

Altunak ohar hau eransten du: “Ohar gauza batez: *manatu*-ren konpletiva nahiz *-ELA* nahiz *-EN* atzizki bidez ematen du poetak” (50. orr.)

ORDENATU

- (50) “Ordenatu zuen Solonek bere legetan, baldin herriko kargudun bati gertha bazekion, sobera edatera (...) *edeki zekiola* berehala bere kargua” (Ax. 190, 264)

OTOITZ EGIN, OTOIZTU, OTOI

- (51) “egin zioen othoitz ... *eman ziazola*” (Ax. 229)

baina

- (52) “Othoitz eguiten drauçuet anayeác, (...) gauça berbat *erran deçaçuen* guciéc” (Leiz. I Kor 1, 10)

- (53) “Ni zugana niatorkezu, bekhatore handia,
karioki othoitzera zu *zakiztan balia*” (Etxepare, I, 393)

2.3. Zenbait izenen osagarri ere ager daiteke subjunktibozko perpausa, izen hori eta osagarria elkarrengandik urrun aurki daitezkeen arren.⁵

GOGANBEHARREZ / BELDURREZ

- (54) a. “Handik zerbait *ethor zekion* goganbeharrez” (Ax. 15)

b. “Ibiliko dira gaisoen artean odolak *mantxau eztagizan* bildurrez sangria bat egin bear danian” (Mogel, *Peru Abarka*, 18)

PERIL

- (55) “Peril da *edeki dakigun* ethorkizunekoa” (Ax. 110)

PREMIA

⁵ Beste ikuspuntu batetik ere ikus litezke perpaus hauek, hots: izenak eta aditzak elkarrekin predikatu konplexu bat osatzen dutela pentsa liteke (*peril izan, premia izan, sententzia eman, grazia egin*, etb.)

- (56) "Ikusten duzunean, etzaituztela sinhetsi nahi, eta premia dela *sinhets zaitzaten*, ..." (Ax. 121, 168)

GRAZIA (EGIN)

- (57) "Bekhatutan *hil ez nadin* egidazu grazia" (Etxepare, I, 430)
 (58) "ador'ezak debozionez eta galde grazia azkhen finian eman diazan recebitze dignia" (Etxepare, I, 38)

SENTENTZIA (EMAN)

- (59) "Harren bier emanen du sententzia pizuia elgarreki *pena diten* ifernuko garrian..." (Etxepare, I, 256)

2.4. Zenbait predikaturekin ((ON/HOBE/ONGI; MEREZI(A), EROKERIA, KOMENI, BALIO, ARRAZOIN, JUSTO, ZUZEN, SORI, POSSIBLE, ...) IZAN)

- (60) "hobe da halaber *utz diazozun* zeure umeari edo ondokoari guti, eta on, ezen ez anhitz eta gaixto" (Ax. 165)
 (61) "Ongi da, eta merezia da aitzineko fabore ttipiez konturik egiten eztuenari, *eztakitzan eman* handiak" (Ax. 69)
 (62) "Zer erhokeria da bada haur, zuretzat diren mehatxuez, eta gaztiguez *eztagizun* konturik, eta zuretzat eztiren miseriakordiazko solhasez *har dezagun* atsegin?" (Ax. 95)
 (63) "Arrazoin da, trabaiillatzen den laborariak, berak lehenik bere fruituetarik *dasta dezan*" (Ax. 116)
 (64) "On da *jakin dezazun*" (Iturriaga, *Fab* 119)
 (65) "Aski da *aipha dezazun* hitz bakar bat" (Larreguy 151)
 (66) "ez dela zuzen ongi hil dadien" (Duvoisin, *Liburu ederra* 169)
 (67) "ezta posible Jinkua *tronpa dadin*, ez gu *tronpa gitzan*" (*Catlan* 22)
 (68) "ezta sori behin baizen *rezebi dadin*" (Lç ABC 81)

Horrenbestez, honela labur liteke 'subjunktibo + ELA' / 'subjunktibo + -EN' esamoldeen banaketa:

1. Badira zenbait predikatu -ELA-dun perpaus osagarria nekez onartzen dutenak:

a) NAHI IZAN, BEHAR IZAN, MEREZI, ONETSI, ... aditzekin -EN atzizkia hartuko du perpaus osagarriko aditzak, jokatua denean.

b) Subjektutzat perpaus jokatua onartzen duten predikatuekin (ON, KOMENI, BALIO IZAN, HOBE, EDER, ITSUSI, KALTEGARRI, SORI, ZILEGI, ZUZEN, POSIBLE ...) ere *-EN* atzizkia hartuko du perpaus menperatuak.

2. Badira, ordea, *-EN* atzizkidun osagarriaz gainera *-ELA*-duna ere onartzen duten predikatuak. Agindu-/erregu-/eskari-... aditzen mende doanean, joera nabarmena dago *-ELA* atzizkia erabiltzekoa. Egia da *-eta* honen lekuko dugu Leizarraga- *-EN* atzizkia erabil daitekeela kasu hauetan, baina ez da gutxiago egia *-ELA* dela nagusi beste autore askotan. Axular izango litza-teke bigarren joera honen eredu. Gure gaurko usadioa ere horixe dela esango nuke.

Zer erakusten digu honek? Orokorrean, honela labur daiteke: perpaus menpeko bat *subjuntiboan* doalarik (*eta* hautapen hau hiztegiak ezarriko liguke) perpaus honek beti har dezake *-EN* atzizkia. Baina *-ELA* atzizkia erabiltzea ere zilegi da baldin *eta* menpeko perpausak nolabaiteko agindua, eskea, edo erregua adierazten badu. Horrelakoetan, gainera, aditz nagusia nolabait komunikazio aditz izan ohi da. Izan ere, aginduak, erreguak, eskeak, norbaiti egiten zaizkio. Horrenbestez, bidezkoa da bere osagarrian agindu, eske edo erregu hori daraman aditz nagusia komunikazio aditz izatea. Hori aski argi ikusten da jaso ditugun adibideetan: ABISATU, AGINDU, ERREGUTU, ESAN, ESKATU, JAKINARAZI, GAZTIGATU, GOMENDATU, KONTSEILATU, MANATU, ORDENATU, OTOITZ EGIN, ... denak komunikaziozkoak dira *eta* denek ametitzen dute osagarri gisa *-ELA*-dun subjuntibozko perpausa. *Eta* komunikaziozko ez diren predikatuekin (NAHI, BEHAR, POSIBLE, ZILEGI, KOMENI, ON, ...) ez da *-ELA* atzizkirik agertuko, joera nagusi bezala behintzat.

Hala ere badira beste batzuk *-BEGIRA* *eta* *EGIN*, bereziki- berez komunikaziozko ez izan arren, agintera forman erabiliz gero (*BEGIRAUZU*, *EGIZU* forman) *-ELA*-ren agerpena zilegi egiten dutenak. *EGIZU*, *BEGIRAUZU*, *IGUZU*, ... ez dira komunikaziozko aditz, baina beren osagarria agindu/erregu gisa interpretatzen da. Pentsa liteke, behar bada, nola-halako adizki ihartuak direla, ondoren datorren eskari-erregua indartzeko edo ezar-tzen direnak.

Leizarraga bera ez da *-ELA*-ren oso zalea. Hark menpeko perpausetan normalean *-EN* darabil, baina kasu batean behintzat *-ELA* ere badakar *eta*, hain juxtu, perpaus nagusiko aditza aginteran emana denean (*jakin erazi iezo-zue*) gertatzen da hori. Gainera, *JAKINARAZI* komunikazio aditza ere bada: norbaiti jakinarazten zaio.

Gorago eman dugun zerrendan bada beste aditz bat *-ELA* osagarriarekin ageri dena: *ERABAKI*. Hau ere normalean ez dugu subjuntiboarekin ikusi-

ko baina batzuetan bai. Erabaki dena agindu eran ematen bada, orduan zilegi dela dirudi *-ELA* ezartzea. Baina kasu honetan ERABAKI komunikazio aditz dela esan ezin balitz ere, esan genezake gutxienez, aginterazko perpaus osagarri bat daramala, hots erabaki dena agindu bat dela. Hortaz, agian aski litzateke esatea perpaus osagarria aginterazkoa, edo "directive" deitzen direnetakoa bada, orduan, *-ELA* atzizkia ere erabil daitekeela.⁶

DEBEKATU aditza, berriz, problematikoa ageri zaigu. Alde batetik AGINDU-ren pareko dirudi, baina berezia da. OEH-k dio "(Aux. trans. bi-o tripersonal, con objeto directo de 3ª persona, que puede ser tbn. una subordinada con sust. verbal (-t(z)ea; muy excepcionalmente instrumental o alativo) o completiva con -la o, menos frecuente, subjuntivo)". Testuan, ordea, "completiva con -la" delakorik ez da batere jasotzen eta subjunktibozko bakarra:

- (69) "Zeren Jinkoak debetatü baitzerion Moisarri *eladin ager* eskiak hutsik haren aitziniala" (BP I 120 (tbn. subordinada negativa en EZ Eliç 128; en cambio afirmativa en Elsb *Fram* 97).

Nolanahi ere, subjunktibozko adibideak oso bakanak dira eta, dirudieenez, *-ELA*-dunik ez da ageri.

- (70) "Eta larderiarekin debekatu zioten, hartaz *etziozoten* nihori holakorik *erran*" (DV, Mk 8, 30)

Hemen daukagun araua, nonbait, Lafittek (1944) eman zuena dugu: "Les verbes d'empêchement (debekatu (...), gibelatu (...), begira ukan (...), begiratu (...), etc.) se construisent avec le subjonctif conjonctif; mais d'ordinaire ce subjonctif est précédé en basque de la négation ez" (879).

Azkenik, 'aurkezpen' gisa "*hau da nire nahia*" edo "*nahi dudana da*" bezalako esapide bat buruan duela eman daiteke subjunktibozko perpausa. Hauetan ere, ikusi dugun bezala, badirudi *-ELA* ezartzeko erraztasuna dagoela. Arrazoa ez dakit zein izan daitekeen. Nolanahi ere, badirudi subjunktibozko perpaus hauek nolabaiteko askatasun sintaktikoa hartzen dutela, hurrengo atalean aurkeztuko ditugun aginterazko perpaus lokabeen taxua hartuz.

Usadio zaharrena, hala ere, *-EN* dugu. Leizarraga eta Etxepare izango lirateke lekuko. Bestalde, berau dugu erabilera nagusia nonahi. Beraz, *-EN* erabiltzea beti da zilegi. *-ELA*, berriz, baldintza batzuk betez gero, erabil daiteke. Hortaz, *-ELA* termino markatua izango genuke.

⁶ Horregatik, gure euskarazko egunkari bakarrean agertutako idazlan batetik bildutako perpaus pare honetatik lehenbizikoa ez litzateke zilegi izango, bigarrena, behar bada, bai:

a. "Ezin dugu permititu gure Herria *desager dadila*" (*Euskaldunon Egunkaria* 97.9.11, 4. orr.).

b. "PP alderdiak, alderdi guztiek Proiektu amankomun bat *onar dezatela* exijitzen du" (ibid.).

3. AGINTERAN GAUZAK NOLA DIREN.

Sarritan aipatu izan den bezala, mendeko perpausak agindua adierazten badu, agintezkoa bada, perpaus horretako aditza subjunktiboan joan ohi da. Hots: aginte perpaus bat menpeko perpaus gisa ematen denean, subjunktiboz baliatzen gara. Aurreko atalean jaso ditugun adibideek hori erakusten dute. Gainera, goian esandakoaren arabera, agintezko perpaus hauek gehienetan komunikazio aditzen mende doazenez, *-ELA* hartzeko aukera izango dute.

Baina aginte perpausak menperatuak ezezik, nolabait lokabeak ere izan daitezke.

Batetik "directive speech acts" direlakoak (cf. Riselada 1993) *agintera* deitzen dugun *modua* erabiliz gauza ditzakegu. Hauek aginterazko "garbiak" izango ditugu. Baina *-EN/-ELA* atzizkiaz hornituriko perpausen bidez ere gauza daitezke.

3.1. Benetako agintera.

Benetako aginteran, -subjektua bigarren pertsonakoa denean alegia- atzizkirik gabeko adizkiak ditugu: *egin ezazu, zatozte, mintza zaitez* etab. Hauek dira, hain zuzen, egiazki aginteratzat hartu ohi direnak eta halaxe jasok ageri ohi dira gure gramatiketan. Formaren aldetik badute "subjunktibo" deitu ditugun horiekin zer ikusia, euskal gramatiketan sarritan aipatu izan den bezala. Aditz trinkoetan, berriz, "indikatiobotzat" hartu ohi den adizkiaren eta agintera honen artean ez dago inolako alderik: *zatoz* adizki bera da -azentuetan salbu- *astiro zatoz* eta *zatoz astiroago* perpausetan. Intonazioak eta hitz ordenak salatzen digu kasu bakoitzean zeren aurrean gauden.⁷

**EDIN* aditz laguntzailea dugunean ere, kontu bera dugu: *EGLU*-n orainaldiko adizkitzat *-zaitez-* eta *-zaitezte-* ematen dira. Hauek "subjunktibotzat" hartu ditugu guk baina argi dago aginteran erabiltzen ditugun adizki berberak direla: *irten zaitez / irten zaitezte*.

**EZAN* laguntzailea dugunean gauzak zertxobait aldatzen dira, zeren NOR hirugarren pertsona denean orain aldian ageri ohi den hasierako *D*-ren orde \emptyset baitugu: *egin -dezazu-* vs. *egin ezazu*.

⁷ Aditz trinkoetan aginteraren eta orainaldi errearen artean forma desberdintasunik ez badago ere, perpausan gertatzen den hurrenkeraren berri nolabait syntaxian eman behar-ko litzateke. Badirudi, gainera, hurrenkera berezi hau lotua dagoela galdegai-mintzagai kontuekin.x

Azken datu hau kontuan dugula, *agintera* moduaz hitzegiteko eskubidea badugula ematen du.

Bestalde, subjektua bigarren pertsonakoa barik hirugarren pertsonakoa denean ere aginteratzat hartu izan da adizkia. Hauen ezaugarria da hasieran *B*-morfema agertzea: *betoz*, *mugi bedi*, *eros beza*, etab. Forma berezitasun hau dela medio, zilegi da hauek ere aginteran kokatzea.

3. 2. Atzizkiz hornitutako agintera.

Ordea, benetan aginteratzat har litezkeen adizki hauen parean baditugu beste batzuk *-EN* eta *-ELA* atzizkiaz baliatzen direnak. Hauek gorago aipatu ditugun "subjunktibo" direlako horiek besterik ez dira. Atzizkiz hornituak ageri direnez, menpeko perpaus direla esan beharko genuke (ik. Azkue 1925, 478 edo Euskaltzaindia 1994, 7-9), nahiz eta "aditz nagusi" izan beharko lukeena ez den inondik ageri:

- (71) a. *Datorrela* hurrengoia.
b. *Goazen* etxera.
c. *Asma dezagun* beste gezur bat.
d. *Ez zaitez tala* horretaz *fida*.
etab.

Dena den, perpaus hauei legokiekeen baina inon ageri ez den aditz nagusia zein izan daitekeen edo horrelako adizkiak dituzten perpausak lokabetzat har ote daitezkeen eta antzeko arazoak albora utzita, oraingoan ere aurreko atalean eztabaidatu den *-EN/-ELA* hautua dugu. Hau dela eta, bi kontu aipa daitezke: a) noiz *-EN* eta noiz *-ELA*, alde batetik, eta b) propioki aginteratzat hartzen diren adizkien eta atzizkia dutenen arteko diferentzia zein den, diferentziarik baldin bada.

3. 3. Noiz *-ELA* eta noiz *-EN*?

1. Lehenbiziko galderari erantzunez, joera nagusia da subjektua lehen pertsonakoa denean *-EN* atzizkia ezartzea: *GOAZEN*, *KANTA DEZAGUN*, *HURBIL NADIN*, *NATORREN*, *GABILTZAN*, etab.

Subjektua bigarren pertsonakoa denean -hots: egiazko aginteran- ez dirudi *-EN* atzizkiarentzat lekurik dagoenik: **ZOAZTEN*, **HURBIL ZAITEZTEN*, etab., ez eta ere **KANTA DEZAZUN*, **EROS DEZAZUEN*, eta are gutxiago: **KANTA EZAZUN*, **EROS EZAZUEN*, adibidez.

Subjektua hirugarren pertsonakoa denean ere debeku berarekin egiten dugu topo, hots: ez dugu *-EN* atzizkirik aurkituko: *KANTA DEZATEN, *HURBIL DADIN, etab.

2. *-ELA* atzizkiak, ordea, bidea zabalik duela ematen du horrelakoetan. Lehen pertsonako subjektua dugunean, adizki perifrastikoetan behintzat, *-ELA* ager daiteke:

- (74) Urte askoan ospa dezagula!
 Zoriontsu izan gaitzela!
 Beti ere, horrelakoxea izan nadila!
 etab.

Eta baita gainerako kasuetan ere:

Subjektua bigarren pertsonakoa denean, *-EN*-entzat lekurik ez bada ere, *-ELA*-rentzat bada:

- (73) Urte askoan *ospa dezazula!*
 Ez *zaitzela* amildegira *hurbil!*

Eta hirugarren pertsonakoa denean, barra-barra entzun daiteke, baita aditz trinkoekin ere:

- (74) *Eros dezala* berak!
Datorrela hurrengoa!
 Hala izan *dadila!*

Adibide hauen arabera, badirudi adizki trinkoen eta perifrastikoen artean bereizi beharra dagoela. Izan ere, subjektua lehen eta bigarren pertsonakoa denean, ez dirudi oso arrunta denik *-ELA* atzizkia erabiltzea adizki trinkoekin:

- (75) a. ?*Goazela* bakean! (cf. joan gaitzela bakean!)
 b. ?*Gabiltzala* kalez-kale! (cf. ibil gaitzela kalez-kale!)

Beraz, badirudi *-EN* atzizkiak debeku gehiago dituela lehen pertsonatik kanpo *-ELA*-k baino.

3. 4. Agintera adizkien eta atzizkia daramatenen arteko diferentzia.

Bigarren galdera da benetako aginteratzat eman ditugun adizkien eta *-ELA* nahiz *-EN* dutenen artean zein den diferentzia.

1. Subjektua hirugarren pertsonakoa denean, honela zioen Azkuek: "A más de uno extrañará esto de ver aparejados como sinónimas las flexiones de la 3ª y 7ª líneas: *bedi* y *daiteala*, *betor* y *datorrela*... etc., y podrán añadir que

daiteala, *datorrela* y demás de su especie no son flexiones de imperativo, sino de subjuntivo. Es cierto. Pero el pueblo -cosa que yo ignoraba hasta consultarle este año de 1924- en muchas zonas reserva las flexiones de tercera con *b* inicial para hablar con personas a quienes trata con reverencia: *betor berori mesedez* “véngse por favor vuesa verced” y al hablar de qualqueir objeto o entidad de tercer grado -este, él, ello, eso, mi padre... etc.- se vale de las citadas flexiones subjuntivas. Si hoy hubiera de traducirse por primera vez el Padre Nuestro, el autor del trabajo, como quisiera ajustarse al lenguaje más corriente, por aquello de “venga a nos el tu reino” no diría *betor gugana zure erreiñua*, sino *datorkigula* (o *datorrela gugana*) *zure erreiñua*. Por flexión receptiva de imperativo correspondiente a “cáigaseme la boina” nadie me dio *txapela yausi bekit*, sino *txapela yausi DAKIDALA*: flexión subjuntiva usada como de imperativo” (Azkue 1925, 909)

BETOR eta DATORRELA, edo EGIN BEZA eta EGIN DEZALA-ren artean, hortaz, ez dago inongo diferentziarik, gaur behintzat.

2. Diferentzia, bigarren pertsonan gertatzen dela dirudi. Bigarren pertsonan nabarmena da aginterako adizkiaren eta -ELA atzizkidunaren artean dagoen aldea:

- (76) a. Ibil zaitetz zuzen ≠ Zuzen ibil zaitetzela!
 b. Irakur ezazu beti horrelaxe ≠ Horrelaxe irakur dezazula beti.

Alde honetatik, interesgarria da Otaegiren testu hau:

- (77) “*Aparta zaitetzte nigandic, madaricatuac, (...) Aparta zaitetzte gueiagoren gueiago ni, zuen azquen fiña, ez alcanzatzeco! Aparta zaitetzte (...) Aparta zaitetzte (...) Aparta zaitetzte nigandic, madaricatuac! Gucian, alde gucietatic ta beti madaricatuac izan zaitetzela (...) Madaricatuac izan zaitetzela (...) Zoazte, madaricatuac, betico infernuco su ta garretara (...)*” (Otaegi, 215).

Madarikatuac izan zaitetzela hori bestelako agintera adizkien artean txertatzea ez dakit baliabide estilistiko hutsa den ala zerbait gehiago. Behar bada *madarikatu izan* bezalako predikatuek badute, beren semantikaz, agintera soilari bidea ixten dion zerbait. Izan ere, OEH-ko korpusean, *madarika zaitetzela* eta *benedika zaitetzela*-ren adibide batzuk aurki daitezke, baina ez dut *madarika zaitetzte* edo *benedika zaitetzte* modukorik aurkitu. Nolanahi ere, predikatu hauek berezitasun semantiko hori badute, arrazoi bat gehiago izango genuke (76)-ko adibideetan nabari den desberdintasuna asmakeria ez delakoaren alde.

Ezezkakoetan agintera eta 'subjuntiboa + *-ELA*' gramatikariek baliokidetzat ematen dituzte. Honela dio, adibidez, Intxauspek (1858): "La forme terminée en la est la plus usitée pour la défense. et la forme simple pour le commendement" (370. orr).⁸ Alegia, debekua adierazteko *ez dezazula / ez zaitzela* gisako formak ematen dituzte. Alde honetatik, konpara dezakegu Leizarragaren pasarteren bat geroagoko beste zenbait itzulpenekin:

- (78) a. "*Eztitzaçuela gogor çuen bihotzac, ...*" (Lç, Hebr 3, 8)
 b. "Ez egizuez gogortu zuen biotzak, ..." (Kerexeta)
 c. "Ez gogortu bihotzak, ..." (*Elizen arteko Biblia*)
 d. "Ez gogortu biotzok..." (Olabide)
 e. "Ez gogor zuen bihotzak..." (Duvoisin)

Nolanahi ere, euskaldun askorentzat, honako esaldi hauen artean bada diferentziarik:

- (79) a. Ez ezazu horrekin hitzegin.
 b. Ez dezazula horrekin hitzegin.

Biak dira debeku, egia, baina bigarrenak debeku hori erdi erreguz, erdi mehatxuz jantzia ematen duela esango nuke.

3. Subjektua lehen pertsonakoa denean, esana dugu ez dagoela, berez, aginterazko adizkirik. Erabiltzen duguna da *-EN* atzizkiak hornitutako adizkia: *goazen, natorren, egin dezadan, ibil gaitezen*. Baina hauen parean *-ELA*-dunak ere baditugu, ordea, adizki perifrastikoetan, gorago esan bezala eta ez dira baliokideak:

- (80) a. Ibil gaitezen kontuz \neq ibil gaitezela kontuz.
 b. Kanta dezagun beti horrela \neq beti horrela kanta dezagula.

Zein da hauetan dagoen diferentzia? *-EN*-dunak askoz hurbilago daude aginteratzat ulertzen dugun horretatik, nahiz eta egiazko aginte ez izan. Aginte baino gehiago nolabaiteko gonbit gisa ulertzen dira horrelakoak. Nolanahi ere, edozein aditzekin eta edozein osagarri edo adizlagunekin eratzeko arazo larregirik ez dugu izaten horrelakoekin:

- (81) a. Kanta dezagun *Boga-boga*.
 b. Har dezadan botela hori.
 c. Has nadin liburuak kontatzen.
 d. Eman diezaiogun bakea elkarri.

⁸ Ikus Lafitte (1944, 865 orr) ere.

Aginteratik hain hurbil izateak dakar adizki hauek euskal gramatiketan aginteraren paradigmen barnean kokatzea.⁹

Baina -*ELA*-rekin eman nahi ditugunean, badira zenbait debeku:

- (82) a. ?Kanta dezagula *Boga-boga*.
b. ?Har dezadala botaila hori.
c. ?Has nadila liburuak kontatzen.
d. ?Eman diezaiogula bakea elkarri.

Perpaus hauek zuzenak izango badira perpaus nagusia ezabatua dagoela ulertu behar da. Horrela bakarrik dira onak:

- (83) - Zer esan du?
- (Esan du) Kanta dezagula *Boga-boga*.

Baina perpaus hauek, zenbait adizlagunez edo inguratzailez horniturik ditugunean, erabat zuzen bilakatzen dira beren nolabaiteko "lokabetasun" horrekin berorrekin:

- (84) a. Beti horrelaxe kanta dezagula *Boga-boga*!
b. Hurrengoan ere har dezadala opari ugari!
c. Has nadila beti ere umore on honekin lanean!
d. Hurrengoan ere eman diezaiogula horrelaxe bakea elkarri!

(82) eta (84)-ko adibideen arteko diferentziak zerbait erakusten duela esango nuke. -*ELA* atzizkia duten perpausak zenbait debeku dituzte, ezin dira nolana hiko osagarriekin erabili. Eta erabilgarri gertatzen diren adizlagun eta osagarri horiek, hain zuzen, geroko nolabaiteko desio edo nahikunde batekin bat datozenak direla esan daiteke. Horrek esan nahi du, testuinguru hauetan, hots: agerian behintzat perpaus nagusirik gabe agertzen den *kanta dezagun* bezalako adizki batek gomit moduko zerbait adierazten duen bitartean, *kanta dezagula* adizkiak gonbita baino areago geroari begirako desio bat adierazten duela, eskari bat direla, eta, horrenbestez, interpretazio honekin bat datozen osagarriak eta adizlagunak onartuko ditu.

⁹ Dena dela, bada hemen ohar bat egin beharrekoa. Argi dago maiztasunaren aldetik pluraleko formak direla ugarietak eta ohikoenak. Goazen modukoak, alegia, ugariagoak dira, noan gisakoak baino. Hori izango da, behar bada, Ithurryren gramatikaren aginteran lehen pertsona pluralekoak bai baina singularrekoak ez jasotzearen arrazoia. Izan ere, aipatu gramatikari honek, adibidez, *bioa*, *hoa*, *bioazi*, *goazin*, *zoazi* eta *zoazte* edo *bego*, *ago*, *begozi*, *gagozin*, *zagozi* eta *zagozte* ematen ditu, denak sailean, lehen pertsona singularrekoa falta dela (ik. Ithurry 1920, 182 eta 192). Hala ere, bistan da lehen pertsonakoak aginteran sartu beharrekoak badira, singularrekoak eta pluralekoak sartu beharko lirakeela.

"Eta iragaiten naizela aitzina, *derradan* hutsik egin gabe" (Ax. 5)

4. LABURBILDUZ.

EZAN/EDIN laguntzailez osatzen diren adizkiak subjuntibotzat har litezkeela esan dugu. Adizki hauek mendeko perpausetan agertuko zaizkigu normalean. Horregatik, atzizki egokiaz horniturik emango dira adizkiok: *-EN* nahiz *-ELA*. Baina *-EN* beti zilegi den bitartean, *-ELA*-k bere esparru berezia du. Hots: *-EN* izango litzateke elementu markatu gabea eta *-ELA* markatua. Erantzun beharreko galdera, hortaz, da ea noiz erabil daitekeen *-ELA* atzizkia. Zenbait aditzen (BEHAR IZAN eta NAHI IZAN izango lirateke usuenak) osagarri diren perpausetan, *-EN* forma da ia erabat ageri dena. Beraz, aditz horien osagarrietan ez da zilegi izango *-ELA* erabiltzea. Zenbait predikaturen (ON IZAN, KOMENI IZAN, etab.) subjektuzko perpausetan ere *-EN* forma da ageri dena.

-ELA-dun formak, berriz, borondate aditz izateaz gainera nolabait komunikazio aditz ere badirenen mende doazen perpausetan erabil daitezke, bereziki aginte aditzekin (AGINDU, MANATU) edo erregu aditzekin (ERREGUTU, ESKATU, OTOITZ EGIN, OTOIZTU, ...). ESAN, ADIE-RAZI, JAKINARAZI eta antzekoak ere komunikazio aditz garbiak dira, baina tasun horrezaz gainera borondate aditz gisa ere uler litezke. Hots: agintezko edo erreguzko perpaus bat onar dezakete osagarritzat. Orduan, *-ELA* atzizkia ager liteke.

Perpaus "lokabeetan" ere *-EN* eta *-ELA*-ren arteko lehia ikusi dugu. Eskuarki, *-EN* lehen pertsonari itsatsia ikusten dugu. Baina *-ELA* hirugarren pertsonari batez ere. Egia da lehen eta bigarren pertsonarekin ere agertzen zai-gula *-ELA*, baina orduan, ezezka emandako bigarren pertsonekin erabiltzen dugunean (*ez zaitezela fida*) izan dezakeen debeku balioaz aparte, nolabaiteko desioa edo zehazten ez den norbaiti zuzendutako eskaria adierazteko erabiltzen dugu.

Edozein modutan, perpaus menperatuetan *-EN/-ELA* aukera egiteko proposatu dugun irizpidearekin baduke honek zerikusia. Normalean ez diogu geure buruari ezer komunikatzen, solaskideari baizik. Beraz, *-EN*. Eta lehen pertsonan *-ELA* darabilgunean esaldiak hartzen duen esanahi berezia ESKATU aditzaren eta beronen osagarriaren artean izango litzatekeen erlazioarekin pareka liteke. Arrazoi beraz balia gintezke, behar bada, bigarren eta hirugarren pertsonan *-EN* ez erabiltzearen berri emateko.

BIBLIOGRAFIA.

- AGIRRE, J. M. (1991), *Euskal Gramatika Deskriptiboa*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- ALLIÈRES, J. (1979), *Manuel pratique de basque*, Éditions Picard, Paris.
- ARRASATE, M. (1992), *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*, EITB, Bilbo.
- AZKUE, R. M^a, (1923-1925), *Morfología Vasca*, (La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969).
- EUSKALTZAINDIA (1979), *Euskal Aditz Batua*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1987), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II. (EGLU)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- INCHAUSPE (1858), *Le Verbe Basque*. Baiona eta Paris.
- ITHURRY (1895), *Grammaire Basque, dialecte labourdin*. Faksimilezko birrargitarapena, Ediciones Vascas, Donostia, 1979.
- KING, A. (1987), "Euskal aditzen deskribapenaren arazo nagusiak", in Salaburu (1987).
- KNÖRR, E. (1988), "Euskal konpletibatzaileak", *Euskera* 33, 2, 522-534.
- LAFITTE, P. (1954), *Grammaire Basque (Nsavarro-Labourdin Littéraire)*, Librairie "Le Livre", Bayonne.
- LAFON, R. (1943), *Le système du verbe basque au XVI siècle*. 2. argitarapena: Elkar, Donostia, 1980.
- LAKA, I. (1995), "Sobre el subjuntivo", in Goenaga, P. (ed.) (1995), *De Grammatica Generativa*, Anejos de ASJU, XXXVIII, Donostia.
- MICHELENA, L. (1987-), *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- MORENO, J. C. (1991), *Curso universitario de Lingüística General. Tomo I: Teoría de la gramática y sintaxis general*. Edit. Síntesis, Madrid.
- OMAEHEVARRIA, I. (1959), *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, Itxaropena, Zarautz.
- REBUSCHI, G. (1984), *Structure de l'énoncé en basque*, SELAF, Paris.
- RISELADA, R. (1993), *Imperatives and other directive expressions in Latin. A Study in the Pragmatics of a dead Language*. J. C. Gieben, Publisher, Amsterdam.

- SALABURU, P. (argit.) (1987), *Euskal Morfosintaxia eta Fonologia. Eztabaida gaiak*, E.H.U.-ko Argitarapen Zerbitzua. Bilbo.
- TXILLARDEGI (1978), *Euskal Gramatika*, Edic. Vascas, Donostia.
- VILLASANTE, L. (1976), *Sintaxis de la oración compuesta*, Edit. Franciscana Aranzazu, Oñate.
- VILLASANTE, L. (1980), *Sintaxis de la oración simple*, Edit. Franciscana Aranzazu, Oñate.
- ZUBIRI, I. eta E. Zubiri (1995), *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, Bilbao.

* * *

Adibidetegiaren erreferentziak:

- AGUIRRE, J. B. (1850), *Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusaldia*. Hordago, 1978.
- AXULAR, P. (1643), *Gero*. L. Villasanteren edizioa, Juan Flors, Barcelona, 1964.
- DUVOISIN, J. (1858), *Bible Saindua*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1972.
- Elizen Arteko Biblia Elkartea(1994), *Elizen arteko Biblia*, Donostia.
- ETXEPARE, B (1545), *Linguae Vasconum Primitiae*. P. Altunaren edizio kritikoa, Euskaltzaindia & Mensajero, Bilbo 1980.
- KEREXETA, J. (1994), *Euskal Biblia*, Bilboko elizbarrutiko Gotzaintza, Bilbo.
- LARDIZABAL, F. I. (1855), *Testamentu berriko kondaira edo historia*. Euskaltzaindiaren edizioa, Bilbo, 1957.
- LEIÇARRAGA, I. (1571), *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*. Euskaltzaindiaren edizioa (1990), Bilbo.
- MOGUEL, J. A. (1881), *Peru Abarka*. Azkueren edizioa, Edit. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo 1970
- OLABIDE, E. (1958), *Itun zaar eta berria*. Mensajero, Bilbo.
- ORIXE (1950), *Urte guziko meza-bezperak*, Tours.
- OTAEGI, B. (1993), *Felipe Agustin Otaegui Beizamako erretorearen eskuizkribuak (1767-1840)*, Beizama-Donostia.
- Idazlan hauezaz gainera, *Orotariko Euskal Hiztegi*az eta honi dagokion korpus fotokopiatuaz ere baliatu gara.